

IRITZIA

» zuzendariari

BERRIAK irakurleen eskuritzak plazaratzen ditu. Tarte bikoitzarekin idatzitako orrialde batean kabitu behar dute, eta **BERRIAK** mozteko eskuibidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izena eta herria adierazita: **BERRIA**, Martin Ugalde Kultur Parkea, 30012 Andoain, iritzia@berria.info

Espetxeko hormak kantuz margotu

Zaila da esatea zenbat lagun etorriko diren. Zaila da jakitea: urtetik urtera alde handia egoten da. Dena den, aurten inoiz baino pinpirinago daude gonbidatuak. Inoiz baino txoritxoago esango nuke nik. Inork ez baitu hilaren 27an eta 28an Etxerat-ekoek egindako ekintzetan kale egin nahi. Eta hori oso ondo antzematen da Cacereseko espetxe inguruko zelai elkorretan, argindarretako kabletan ametsak kulunkatu nahi dituzten mugimendu urdurietan.

Kanpokoak —araba-zozokak, oilagorriak...— eta bertakoak —mikak, usok, artarxoriak...— betiko lagunak bailiran elkarrekin, nahastuta, luze eginda, espetxeko hegalpetan ez bada, kartzelako murruetan daude pausatutik. Batzuk —miru gorriak, zapelatzak...— txor-txor ziegaren zirrikituetatik gorako bidea hartu duen kometari begira. Beste batzuk, zirinarren zuriaz burdin-hesiaren herdoila pintatzen, eguneroko egunari beste itxura politagoa emateko. Tartean ere egongo da egun txarreko mementoetan, txirri-txorro ederre apaintzen egongo dena, edota zigilurik gabeko eskuazala besapean gustukoaren musutxoak ekarriko diona. Eta beste askok, oraindik

etortzeke daudenek —antzarak, kurrioloak...—, zeruaren arbelean lumaren gozoaz elgoibartar batek espetxean erakutsitako *duintasun* hitza idatziko dute.

Eta guk, orduan, begiak itxi, eta gora begiratuko dugu, eta hitzez eta bihotzez margotuko ditugu kantuz espetxeko hormak, eta argi eta garbi esango dizugu: eskerrik asko, Inazio Iriondo, hogeitau urte hauetan erakutsitakoak koloretsuago egiten baitu gaur egungo zerua.

Juan Luis Mugertza
Berango

Espainiako erregea Arrasaten

Espainiako erregea Arrasatera etorriko da, Fagor Etxetreserak eta MCCk gonbidatuta.

Gure mugimendu kooperatibistak dituen 50 urteotan, batzuetan besteetan baino arrakasta gehiagorekin, gure masa sozialaren aniztasuna errespetu osoz mantentzen saiatu gara. Euskal Herriaren joan-etorri sozial eta politikoen aurrean neutraltasuna inoiz mantentzen saiatu gara. Hori izan da, azken urteotan izan diren gertaera politikoenetan, Lizarraga-erazi edota Ibarretxe plana adibide gisa harturik, MCCk bere posizionamendua agertu ez izanaren zergatia edo

arrazoia. Ildo beretik jarraituz, hori izan da Espainiar erregea bere 29 urteetako agintaldian zehar, gure kooperatibetara ekarri ez izanaren arrazoia. Duda izpirik gabe, espainiar monarka ekarteak, erabateko posizionamendu politiko irmo eta sendoa suposatzen du.

Egoera honetan, gogoeta berehala datorkigu: Zergatik, zeinen edo noren izenaren erabakitzen du MCCk zuzendaritzak gaur eta orain, azken urteetako neutraltasun hori apurtzea?

Guzti honekin, MCCk zuzendaritzak, Fagor eta gure egitura eta pertsonen hobe beharra bilatu baino, gure artiko liskarra bilatu nahi duenaren susmoa sortzen zait; ez dirudi beraien erabakiarekin zintzakeren liskar eta ezinegonak beldurtzen dituenik. Neutraltasuna izanik gure organizazioaren izena eta izana; nola liteke beraien pentsaera eta sentsibilitate kooperatibaren ideologiarekiko gailentzea?

Mugimendu kooperatibaren erabaki honek sortuko duen kritika soziala ezin dezakegu ahaztu. Gure adiskide, lagunarte eta kooperatibista ez diren senideen aurrean, Arrasateko mugimendu kooperatibistak dituen bitxikeria edota beste organizazioekiko ditugun desberdintasunak defenditu

ditugun bazkideak asko gara. Gure lana eta gure inguruan sortu dugun aberastasuna bitarteko direla, herri baten eraikuntzarekin konprometitu gauden mugimendu bat gara, Euskal Herria izena duen herriaren eraikuntzan alegia. Bisita honen ondorioz, urte luze izan den oreka politikoa bertan behera geldiru den honetan, oso zaila suertatuko zaigu orain artean mantendu ditugun teoriak defenditzen jarraitzea.

On Jose Maria Arizmendiarrieta jaunak sarritan errepikatzen zuen bezala, pertsonak dira gure organizazioaren funtsa, oinarria eta mamia. Fagor eta MCC osatzen dugun pertsonok sentsibilitate sozial eta politiko determinatu bat dugu: bakoitzak berea. Eta gure zuzendarien betebeharrak da hori errespetatzea, zaintzea eta mimatzea.

Espainiako erregeari egindako gonbite honekin, gutariko askoren barren-barrenean zerbait puskatu dute. Baliteke gure artean zenbait gerente eta lehendakari gure printzipio kooperatiboen defentsan jarraitzea. Nireak berriz, 2004 urteko abenduaren egun batean, espainiar erregearekin batera joango dira.

Ion Dorronsoro
Fagor-eko bazkidea (Arrasate)

» larrepetit

Arnasa



FREDI PAIA

Badakit deabrua beste lau urtez munduko presidente izendatu dutela, eta zapalduen mundu mailako sinboloa zen Arafatek umezurtz utzi gaituela. Memorian isatsirik dauzkat azken asteetako atxilotuen tortura Jazgarrien salakerak, bizitzeko beldurrez bizi diren emakumeen aurpegiak zein lan egiteko eskubidea defenditzen dutenen suzko barrikadak. Ezin dut burutik kendu gure gatazka politikoa konpontzeko zabaldu den abagune berria. Aitzitik, gaur neure burua lehenetsiko dut. Lagun min batek esan ohi duen moduan.

Zuekin konpartitu gura dut frontoia bete jenderen aurrean hanka sartzearen esperientzia. Puntuari eman nizkion bi erantzun tangentialki kenduta polito zihon azterketa. Txapelketan gozatzen ari nintzen beste behin ere. Bertsoan aritzeko bitarteko eta helburua. Baina nire patu tragikomikoari gustatzen zaion eran, azken bertsoko azken berban zain neukan partixiseko garezurraren laukitxo. Berriro hastera? Baliteke. Baina bi urte barru arte ez dago partixisik.

Eskuzabalegia izateagatik gertatu zitzaidan. Nori bururatzten zaio hirugarren puntuan arnasa hartu eta gero seigarrenean ematea? Marxek txalotzeko luke, agian. Egia esan, ez dago bizitzetik arnasa hartu eta gero berriro haizeari eman barik.

Tabakoa utzi beharko dut.

» galde-eskeak



JOSE LUIS ALVAREZ
ENPARANTZA
TXILLARDEGI
IDAZLEA

Omenaldiak, jardunaldiak... zure lanaren errekonozimendua azken batean. Aurtengo udazkena nekez ahaztuko zaizu, ezta?

Onintza Jauregi

Omenaldiak, jardunaldiak... Egia diozu. 75 urteak bete berri ditudan udazken hau bihotz atxagarria izan zait. Zenbait aldetatik bederen (nik uste, baina beharbada oker nago!) merezi nituzkeen baino jazargo eta egur handiagoa bildu ditudala iruditzen zait. Gauza bat ez nuke nahi behintzat: egindakari harropuz ederretsi, kritikak oro arbuaitu, eta geroari buruzko proiekturik gabe gelditzea. Saiatu egingo nauzu, hitz batez, besterik eta hoberik eskaintzen.

Bidali zure galderak iritzia@berria.info helbide elektronikora.

» www.berria.info

Nolako neurriak indartu behar dira emakumeen kontrako indarkeria saihesteko?

Gizarte hezkuntza arlokoak	% 24
Zigor arlokoak	% 3
Bi arloetakoak	% 73

Nik uste bi arloetakoak bultzatu behar direla bizi garen egoera dela eta. Baina zigorra ez da inola ere erantzuna, erantzuna hezkuntzan dago. Erabiltzen dugun hizkuntza sexistak, gure jarrerak eta beste aldatzean datza, eta hori luzerako zerbait izango da, benetako berdintasuna lortu nahi badugu. **Emakumea**

Kanpaina asko egin dira arazo honen gainean, eta guztiek emakumeari berari zuzentzen dizkiote mezuak. Baina arazoa ez du emakumeak bakarrik: hori egitera heltzen den ginezkoak ere arazo psikologiko handia du, eta, horregatik, kanpainak alde bietarako izan beharko liriteke. **Aritz**

» hitz beste

Generoa

ANJEL LERTXUNDI

«Hizkuntza batzuek ez dute generorik, euskarak adibidez», dio nire hiztegiak. Baina atzoko berripaper honek *genero indarkeria* aipatzen zigan portadan, *genero indarkeria* ageri zen artikuluren batean ere, *genero indarkeria* nagusitu da irratian eta kalean. Egia osoa esate aldeara: berripaper honen informazio guztian emakumeen kontrako indarkeria ageri zen batez ere (baita nire begi-belarriei bitxi paradoxikoa egiten zaien emakumeenganako indarkeria ere).

Lokuzioak ingelesezko *gender* du oinarri, *gender* horrek, genero gramatikalez gainera, sexua adierazten duelarik. *Sexu indarkeria* beraz, Espainolez, ordea, *genero* ez da marka gramatikala besterik; hala ere, hitzez hitz hartu dute lokuzioa. Eta guk, generorik gabeko hizkuntza baten jabe omen garenok, *genero indarkeria* hartu dugu espainolaren edertek.

Genero indarkeria ez da ezter; emakumeen kontrakoa, bai, tamalez.